

Kontzertua/Concierto

BENITO LERTXUNDI

Eguna: **Apirilak 22**
 Ordua: **20:30h**
 Lekua: **Auditorium Kultur Leioa**
 Sarrera: **12 euro**



BENITO LERTXUNDI Euskal Herriko musikaren historiaren zati da. Historia horren hasieraren, bilakaeraren eta sendotzearen zati. 40 urtean euskal kulturaren eragile guztien begirunea irabazi du, gure memoria kolektiboan bildutako irudiak gogora ekarri dituzten kantu eta sentimenduekin.

1971n bere lehen diskoa argitaratu zuen, kantariaren izena izenburu zuela: *Benito Lertxundi*. Bere lehen single-en bilduma izan zen, azken batean: bere lehen amodio- eta borroka-kantak, gitarraren laguntza soilaz abestuak, abesti herrikoiak eta berak sortutakoak uztartuz.

Oro laño mee batek..., bere lehen lan luzea **1974**koa da. Musikaren soiltasun bidetik jarraitzen badu ere, helduago eta landuagoa da. Lizardiren poemez gain, memoria kolektiboan iraun duten kantuak nabarmendu behar dira, esaterako *Herri behera* jota, edo Artzeren poema batean oinarritutako *Txori txikia* abestia.

1975ean *...eta maita herria, üken dezadan plazera* izenburuko lana argitaratu zuen. Arrakasta handia lortzeaz gain, funtsezko disko bilakatu zen: hor ageri dira Zuberoaren xarma eta mugaren aldi bietako Nafarroa.

1977an *Zuberoa / Askatasunaren semei* disko bikoitza atera zuen. Zuberoarenganako amodio eta omenaldi adierazpen gisa har genezake disko hori.

1981ean beste disko bikoitz bat argitaratu zuen: *Altabizkar / Itzaltzuko Bardoari*. Orreagako gudua oinarri hartuta, Benitok euskal epikaren arrasto urriak hartu eta modu be-

rezian landu zituen. Bigarren diskoan ezin ditugu ahaztu beste kantu kutun asko: *Oi ama Eskual Herri* edo *Nere herriko neskatxa maita*.

1985ean argitaratutako *Gaueko ele ixilen baladak* barnealdeko bilaketa eta ikerkuntza da, bere filosofia pertsonala azaltzeko bidea ematen diona.

Azkenik, *Pazko gaiardi ondua*, 1989koa, bere bilduma atera baino lehen argitaratutako azken diskoa da.

1993an, musikan hamarkada bi baino gehiago emanda, *Hunkidura Kuttunak* bilduma argitaratu zuen. Bi disko bikoitz dira, 46 abesti, horietako batzuk eguneratutakoak.

Azken diskoa, *Pazko gaiardi ondua* atera zuetik 7 urte igarotakoan, 1996an Hitaz Oroit atera zen argitara. Urbeltz, Xalbador, P. Ramirez eta Lertxundiren beraren hitzak biltzen dituen disko honetan nabarmentzekoak dira Aingeru Irigarairen eta Martín Irizarren oroimenari dedikatutako hiru abesti.

Eta **1998**an, Tolosaldeko Kilometroak 98-ren antolatzaileek Benito Lertxundi, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Enrique Ugarte biltzea lortu zuten.

Aurten zuzeneko lehen diskoa argitaratuko du. Disko bikoitza da “Zuzenean”. 20tik gora abesti biltzen ditu, eta barnean luxuzko liburuxka luze-zabala du. Aparteko dokumentua, zinez.